

## **Nafarroako Esaera Zaharrak. Muskitz.**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## Nafarroako Esaera Zaharrak. Muskitz.

- 992 *"Ama Birjiña martxoko: (e)man diok neguari ostiko". Ori esan omen zuen beiak. -"San Markok bildur neri", esan omen zuen beorrak.*  
San Marko apirillaren 25'ean.
- 993 *Ez den lekutik ezin atra (atera).*
- 994 *Illorrosi zak ezkurre duen arbola.*  
Babes ona billa zak. Illorrosi = iñarrosi, astindu, dardarazi.
- 995 *Jai t'aste, mal traste.*  
Astez jantzirik oberena, jaiarako gabe.
- 996 *Naiko duenak ongi bizi, gaurko afarie biarko utzi.*  
Eguneko geiegizkoa biaramonerako gorde.
- 997 *San Juan bezpera, sarna a fuera. Ogie ta ardoa etxera. Atso zarra ganbelpera. Neskatx(a) gaztiak txokolate artzera.*  
San Juan suaren gaiñean jauzi egitean farrez esaten zen ori.
- 998 *Santa Barbara: auntzek babara, ardiek erure, artzaiek zerure, makille infernure, zakurre, nai duen lekure.*  
Erure = erura; Eru (erderaz yero) landare bat da; aziendari ematen zaio jatera.
- 999 *Txamarka, udaren ta neguaren marka.*  
Txamarka = San Markos.
- 1000 *Urteak adarra luze.*  
Urte-bidean gauza asko bear izaten.